

Euskal biblioteka aldarrikatu du Torrealdaik sarrera-hitzaldian

Euskal kulturaren alorreko hainbat lagunen babesa jaso zuen Torrealdaik zapatuan, euskaltzain oso ofizialki izendatzeko Foruan bertan egindako ekitaldian.

ITSASNE MADARIAGA

Zapatuan Joan Mari Torrealdaik ofizialki euskaltzain oso izendatzeko ekitaldia egin zuten Foruan, haren sortzezko herrian. Sarrera-hitzaldia jendez lepo zegoen frantziskotarren elizan eman zuen Torrealdaik. Hainbat aurpegi ezagun hurbildu ziren bertara Torrealdaik bere babesa agertzera. Haren senideak, Foruko alkatea eta eskualdeko beste zenbait alkate, gainontzeko euskaltzainak, Martxelo Otamendi Berriako zuzendaria, Blanca Urgell Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, Josune Ariztondo Bizkaiko Kultura eta Euskara diputatua, Joan Mari Larrarte EKTko kontseilari ordezkaria eta Imanol Murua kazetaria izan ziren ekitaldian, besteak beste.

Foruko alkatea izan zen berba hartzen lehena eta jarraian Andres Urrutia Euskaltzaindiako presidenteak Torrealdairen goi maila nabarmendu zuen. Horrez gain, euskal kulturaren sustatzaile eta defendatzaile gisa agertu zuen foruarra. Euskaltzaindiako domina jaso baino lehen, 'Bibliografiatik Bibliotekara. Esperientziari leihoa' izeneko hitzaldia eman zuen Torrealdaik. Hala ere, Euskal Herriko Liburutegi bateratua sortzea abiapuntu izan zuen berbaldiari heldu orduko, Foruko herriarentzat esker oneko berba batzuk izan zituen omenduak.

Euskal Herriko Liburutegia eta amets nostalgikoak

'Bibliografiatik Bibliotekara. Esperantzari leihoa' hitzaldia prestatzerako orduan, aldi berean, bi keinu egin gura izan zituela aitortu zuen Torrealdaik. Esan zuenez, alde batetik, Bibliografiatik Bibliotekara izenburuarekin, Ramon Sota Bizkaiko Aldundiko buruaren ikuspegia eta irmotasuna batu nahi izan ditu. Bestalde, bibliografiaren eta bibliotekak Euskal Herrian izan duten bilakaera aztertu eta plazaratu zituen euskaltzain osoak zapatuko ekitaldian. Hau da, bi alor horietan egin diren ahaleginen berri eman zuen, batez ere Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntza erakundeak urteetan egin duten lana goraipatuz.

Bestetik, Bitoriano Gandiaga euskaltzain mendatarraren olerkiak gogora ekarri zituen Torrealdaik. Esperantzari leiho bat/zabaldutako omen diote/bizi ahal ote den/ikusteko ere. Izan ere, aro digitalean esperantzaren leihoa zabaltzea beharrezkoa dela aldarrikatu zuen.

Euskal kultura munduan barrena hedatzeko, erreferentzia zein identifikatzeko tresna gisa, Bibliografiagune bat eta bakarra sortzea ezinbestekoa dela adierazi zuen foruarrak. Haren ustez, Bibliografiaguneak euskarazko ekoizpenak batu beharko lituzke, baina baita ere euskarari buruz mundu zabalean argitara eman den guztia ere. Euskaltzaindiaren mendeurrean bilduma lan hori egingo lukeen Euskaltzaindiaren ikergune berri baten sorkuntza proposatu zuen Joan Mari Torrealdaik.

Topikoa onartutzat ematen da eta suposatu egiten da euskaldunak ez duela idatzi, edo gutxi idatzi duela, esan zuen Torrealdaik. Horren zergatiak bilatzean, idatzi dutena ez delako ezagutzen eta inoiz ez delako sistematikoki arakatu, esan zuen. Horra euskal Biblioteka bateratuaren beharra, gaineratu zuen. Bagara eta izaten jarraitu nahi dugu, nabarmendu zuen Torrealdaik. Euskal Herri osoa bere baitan hartzen duten erakundeen arteko organismo autonomoak sortu behar direla adierazi zuen omenduak. Haren iritziz, horrela biblioteka unean uneko liskar politikoen eremutik aterako litzateke.

Non ote gendeukeen gaur euskal biblioteka eta bibliografia guneak baleude?, itaundu zien bertaratutakoei. Amets utopikoekin amaitu zuen 50 minutu inguruko iraupena izan zuen sarrera-hitzaldia, euskal kulturaren loraldiaren hastapenetan, aurrera eramandako hainbat egitasmorekin batera, euskal Biblioteka bateratu baten sorkuntzak suposatuko lukeenaren inguruko hausnarketa eginez.

Gurekin nahi eta behar zaitugu

Jose Antonio Arana Martijak Torrealdairen sarrera hitzaldiari 'Alexandriatik digitalizaziora' izeneko mintzaldiarekin erantzun zion. Ordubete inguruko iraupena izan zuen hitzaldian biblioteka eta bibliografia egile askok egindako lanaz mintzatu arren, Torrealdairi arrazoia eman zion, oraindik zerbait falta dela aitortuz. Horrez gain, Torrealdairen ibilbide profesionala gogoratu zuen. Bestalde, 'Egunkaria' auzia ekarri zuen gogora Arana Martijak. Gaurko jaia iluntzen du epaiketa azaroan izango dela jakiteak. Baina gu harro gaude gure euskaltzain berriarekin eta ziur gaude han eta hemen besarkatuko dugula. 2003an Euskaltzaindiak Hernanin Egunkariaren eta Torrealdairen alde egin zuen, adierazi zuen. Mintzaldia gure artean nahi eta behar zaitugu Joan Mari! aldarriarekin amaitu zuen.

Hitzaldia eta gero

Ekitaldiaren amaieran Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoa zela adierazten zuen diploma eta domina eman zizkion Torrealdairi. Akademiako idazkari Xabier Kintanak hitza hartu zuenean, Foruko Urdaibai dantza taldeko neska-mutilak frantziskotarren elizan sartu, eta bildutakoen txalo zaparradaren artean zeremoniako protokolo zurruna eten zuten irrintzi bat jaurtiz eta ohorezko aureskua dantzatzuz.

Bukatzeko, hainbat opari jaso zituen Torrealdaik. Foruko alkate Igor Duñabeitiak Urdaibaiko irudi bat oparitu zion herritar guztien izenean. Usurbilgo lagunen partez, aldiz, Manex eta Garazi seme-alabek eman zioten beste margolan bat. Eta Foruko lagunek erloju bat eman zioten. Ondoren, Juan Mari Torrealdairen sarrera-hitzaldia entzutera eta berau zoriontzera Foruaraino hurbildutakoek hamaiketako dastatu zuten frantziskotarren elizaren kanpoko aldean.